



ALZOLA BERRIOZABALGOITIA, Izaskun

Enpresa Zuzenbideko irakaslea
Mondragon Unibertsitatea
Larraña, 16
20560 Oñati
ialzola@eteo.muni.es

BIBLID [1137-1951 (2001), 8; 11-22]

Kooperatiba Sozietateak eta beren eraketa

(The constitution of Co-operatives)

Zan honen helburua, alde batetik, Kooperatiben ezaugarri identifikatzaileak azaltzea da eta, bestetik, horiek eratzeko prozedura aztertzea. Euskadiko Kooperatiben Legea orain dela gutxi aldatu da, batez ere, Kooperatibak eratzeko erraztasunak emateko. Ondorioz, bazkideen eta sozietate kapitalaren gutxieneko kopurua murriztea bezalako neurriak hartu dira. Nolanahi ere, nahiz eta azkenaldi honetan Euskal Kooperatiben mugimenduan Kooperatiben eraketa prozeduraren sinplifikazioa planteatu ohi den, ondoren azalduko ditugun alternatibak proposatuz, sozietate horiek eratzeko izapideak ez dira aldatu.

El objeto del presente trabajo es exponer las características identificadoras de las Cooperativas y analizar su procedimiento de constitución. La Ley Vasca de Cooperativas ha sido recientemente modificada, siendo uno de los principales objetivos de dicha reforma facilitar la constitución de nuevas Cooperativas. En consecuencia, se han adoptado medidas, tales como la reducción del número mínimo de socios o del capital social mínimo. Sin embargo, a pesar de que dentro del movimiento Cooperativo vasco se ha venido planteando la necesidad de simplificar el procedimiento de constitución, los trámites para constituir las Cooperativas no han sido modificados.

Ze but de ce travail est d'expliquer les caractéristiques d'identification des Coopératives et d'analyser le processus de leur constitution. La Loi Basque de Coopératives a été récemment modifiée, le but principal de cette réforme étant de faciliter la constitution de nouvelles Coopératives. Par conséquent, on a adopté des mesures, comme la réduction du nombre minimum de membres ou du capital social minimum. Pourtant, bien que l'on ait envisagé la nécessité de simplifier le procédé de constitution dans le mouvement Coopératif basque, les formalités pour constituer les Coopératives n'ont pas été modifiées.



1. Sarrera. 2. Kooperatiba Sozietatea. 3. Kooperatiba Sozietateen eraketa. 4. Kooperatiba Sozietateen eraketa prozedurari buruzko jarrerak.

1. Sarrera

Ezinezkoa da Kooperatiba mugimendua barneratzen dituen alderdi guztiak orrialde gutxitan aztertzea eta laburtzea. Hala ere, Kooperatiben Zuzenbidean sakontzen hasi nahi badugu, oinarritzakoa da jakitea zer den Kooperatiba Sozietate bat eta zelan eratzen diren sozietate horiek, funtsezko bi arrazoi hauengatik: alde batetik, Kooperatibak identitate propio bat duten sozietateak direlako, hau da, Kooperatiba Sozietatea eratzen denean sortzen den harreman juridikoa balio eta printzipio batzuen arabera konfiguratu beharko da; eta bestetik, Kooperatiba bat eratzeko prozedura merkataritzako sozietateentzako ezartzen den prozedurarekin konparatzen badugu, konturatuko gara, nahiz eta sozietate mota bietan bete behar diren tramiteek oinarrian eskema bera jarraitzen duten, Kooperatibak eratzeko prozedurak ezaugarri berezi batzuk dituela, ondorengo lerroetan azalduko ditugunak, hain zuzen ere.

Ukaezina da Kooperatibak enplegua sortzeko bideak direla. Ondorioz, orain dela gutxi, legegileak hainbat neurri hartu ditu Kooperatibak sustatzeko. Neurri horien artean, gure gaiari helduz, Kooperatibak eratzeko eskakizunak arintzen dutenak ere aurkituko ditugu, baina Kooperatiba eratzeko izapideak mantendu egin dira.

Kooperatiben mugimenduaren barruan, eta Kooperatibagintza sustatzeko beste bide bat bezala, Kooperatiben eratze-prozesua erraztea kuestionatzen eta planteatzen ari da aspalditik, alternatiba desberdinak proposatuz, baina guztiak helburu berarekin, hau da, Kooperatibak eratzeko izapideak arintzea. Zeintzuk dira alternatiba horiek? Lan honen azken atalean, eraketa prozesua azaldu ondoren, jarrera desberdin horiek aztertzen saiatuko gara.

2. Kooperatiba Sozietatea

Dударik gabe, Kooperatiba mugimendua mundu guztian zehar hedatuta dagoen errealitate bat da. Izan ere, Kooperatiba Sozietateak hainbat herrialdetan garatzen dira eta era askotako interesak asetzen dituzte. Horregatik esan daiteke ez dagoela modu bakar bat Kooperatibak

definitzeko eta arautzeko; hala ere, egia da identitate propio bat dutela.

Nazioarteko Kooperatiba Aliantza (aurrerantzean, NKA), 1895. urtean sortu zenetik, Kooperatibak definitzeko eta horiek oinarritu behar diren printzipioak lantzeko autoritate gorena da. Aliantzak eman duen printzipio horiei buruzko azken definizioa, Manchesterren 1995eko irailean egin zen bileran onartu zen "*Kooperatiba Identitatearen gaineko Adierazpen*"-ean aurkituko dugu. Adierazpen horretan Kooperatibak definitu, mugimenduaren balioak zerrendatu eta printzipioak edo oinarriak berraztertu egin ziren, nazioartean dauden Kooperatiba-mota guztientzako esparru komun bat emateko helburuarekin. Izan ere, arrazoi garrantzitsuenetariko bat "*Kooperatiba Identitatearen gaineko Adierazpena*" egiteko Kooperatiba guztietan nagusitu behar diren arauak eratzea izan zen.

NKAren Adierazpenaren arabera, Kooperatiba Sozietatea, beren borondatez eta beren beharrez ekonomiko, sozial eta kultural komunak asetzeko biltzen diren pertsonen elkarte autonomo bat da, pertsona horien guztien jabetzakoa den eta demokratikoki kudeatzen den enpresa baten bidez.

Beraz, lehenengo eta behin esan behar duguna, Kooperatiba Sozietatea *pertsonez osatuta* dagoen *elkarte* bat dela da. Pertsona horiek bai pertsona fisikoak, bai pertsona juridikoak izan daitezke.

Elkarte hori *autonomia* da, hau da, ahal den heinean, gobernu eta enpresa pribatuengandik independentea. Dena dela, ez dugu ahaztu behar askotan Kooperatibak gobernuen sustapenaren ondorioz sortu direla.

Bukatzeko, NKAk ematen duen definitziorik ondorioztatu behar dugu Kooperatiben helburua beren elkartuen *beharrizanak asetzea* dela, beharrizan ekonomiko, sozial eta kultural komunak, hain zuzen ere, eta beharrizan horiek elkarte guztien jabetzakoa den eta demokratikoki kudeatzen den enpresa baten bidez gauzatzen direla. Aliantzak Adierazpena egiteko arrazoiei buruz egin zuen txostenean azaltzen duenez, elkarte guztien jabetasuna eta kontrol demokratikoa dira Kooperatibak beste erakunde batzuetatik bereizten dituzten ezaugarriak. Horrez gain, ezin dugu ahaztu Kooperatibetako bazkideen kontrol demokratikoa berdintasunean oinarritzen dela, bai lehen mailako Kooperatibetan "*pertsona bat boto bat*" erregela aplikatzen delako, bai bigarren eta ondorengo mailakoetan partaideen arteko oreka lortzeko neurri bereziak aplikatzen direlako, eta hori ez da gertatzen sozietate kapitalistetan (azken horietan, eskuarki, partaide bakoitzak dituen

eskubideak ekarpenen arabera egongo dira)¹. Nolanahi ere, aipatutako kontzeptua ez da definizio juridiko bat zentzu hertsian, baizik eta, Aliantzak zehazten duenez, adierazpen minimo bat da, eta bere helburua Kooperatiba-legediak egiterakoan, bazkideen heziketan edota testu-liburuak prestatzerakoan baliagarria izatea da.

Kooperatibak definitu ondoren, NKAk Kooperatibek elkarlaguntza, erantzukizuna, demokrazia, berdintasuna, ekitatea eta solidaritate balioetan oinarritu behar dutela adierazten du. Bere fundatzaileen tradizioa jarraituz onestasunaren, transparentziaren, sozietate-erantzukizunaren eta besteengatiko arduraren balio etikoak bereganatzen dituzte. Horrez gain, Kooperatibek printzipio batzuetan oinarritu behar dute. Printzipio horiek, balioak gauzatzeko bideak dira, eta Adierazpenean ondoko zazpi printzipio hauek zerrendatzen dira: Borondatezko Atxikipen Irekia, diskriminazioa baztertuz; Bazkideen Kudeaketa Demokratikoa, hori lortzeko lehen mailako Kooperatibentzako bazkide guztiek boto eskubide bera izango dute (bazkide bat, boto bat); Bazkideen Partehartze Ekonomikoa, kapitalean modu ekitatiboan parte hartuko dute, hain zuzen ere; Autonomia eta Independentzia; Heziketa, Prestakuntza eta Informazioa; Kooperatiben arteko Lankidetzeta; eta Komunitatean Interesa edo Komunitatearekin Konpromisoa. Aliantzak azaltzen duenez, printzipio horiek ez dira bata besteengandik independenteak, baizik eta guztiak lotuta daude, batasun bat eratuz.

Nazioarte maila alde batera utzita, zelan definitzen dira Kooperatiba Sozietateak gure artean egun indarrean dagoen legedian? 1993ko Euskadiko Kooperatibei buruzko Legeak ematen duen kontzeptua aztertzen badugu²: "*Lehen helburutzat kideon ekonomia eta gizarte-jarduerak sustatzea eta, kideen partehartze zuzenaren bidez, beren beharrianak betetzea duen enpresa garatzen duen elkarte da kooperatiba, betiere, kooperatiba-zaletasunaren oinarriak bete eta bere inguruko gizarteari kasu egiten diolarik*" (1.1. art.). Lege kontzeptu horri helduta esan daiteke ondokoak direla Kooperatiba Sozietateen ezaugarriak nabarmenenak:

- Sozietatearen *enpresa-izaera* azpimarratzen da. NKAren kontzeptua gogoratzen badugu, "*enpresa*" hitza erabiltzen da ere, hau da, normalean

merkatuan funtzionatzen duen erakunde antolatu bat³.

- Kooperatiben lehen helburua *kideen ekonomia eta gizarte-jarduerak sustatzea* eta, kideen partehartze zuzenaren bidez, beren *beharrianak* betetzea da. Beraz, Kooperatiben kideek berebiziko garrantzia dute.
- Kooperatibek *Kooperatiba-zaletasunaren oinarriak* bete behar dituzte eta beren *inguruko gizarteari* kasu egin behar diote. Dena dela, "*Kooperatiba-zaletasunaren oinarriak*" aipatu baino ez dira egiten, hau da, ez dira oinarri horiek zerrendatzen, ezta beren esanahia azaltzen ere. Hala ere, Legearen Zioen Adierazpenean jasotzen denaren arabera, aipatu gabe uzte hori ez da ustekabekoa edo oinarrigabea izan, alde batetik, 1993ko Euskadiko Legea egin zenean NKA Kooperatiben printzipioen birdefinizioa ateratzekotan zegoelako ("*Kooperatiba identitatearen gaineko Adierazpena*" 1995ean egin zen) eta, bestetik, Zioen Adierazpenean jasotzen den bezala, legegileak, printzipioen doktrina-izaerako esakuneak edo argudioak ematen saiatu ordez, Kooperatiben oinarrizko ezaugarrien benetako aplikazioa bermatzeko legezko tresnak eman behar zituela uste zelako. Horregatik, 1.2. artikuluan "*Kooperatibak bere egitura eta jarduera kooperatiben irizpideetara egokitu beharko ditu eta lege honek sortutako esparruan ezarriko dira irizpide horiek. ...*" ezarri zen.

Kontuan izan behar dugu 1993ko Legearen 1.3. artikulua arabera, Kooperatiba sozietateek "*ekonomia edo gizarte arloko edozein jarduera eraman dezakete aurrera kooperatiba-zaletasunarekin oinarrizko eskakizun eta hastapenekin bat ez etortzeagatik legean berariaz bestelakorik adierazten ez den artean*". Xedapen horretan alde batetik, Kooperatiben ekonomia edo gizarte arloko jarduera askatasuna ezartzen da eta, bestetik, legegileak ezin duela Kooperatibaren formula eragotzi erakunde kooperatiba-zaletasunaren oinarrizko eskakizun eta oinarriekin bat badator. Konkretuki, 1993ko Legearen Bigarren Tituluko Lehenengo Kapituluan hainbat Kooperatiba-mota arautzen

1. Lehen mailako Kooperatibak pertsona fisiko edota juridikoez osatzen dira, bigarren eta ondorengo Kooperatibak, ordea, bakarrik Kooperatibez.
2. Gaur egun, Euskal Herrian indarrean dago 4/1993 Legea, ekainaren 24koa, Euskadiko Kooperatibena (EHAA 1993/7/19), baina kontuan izan behar dugu 1/2000 Legeak, ekainaren 29koa, sartu dituen aldaketak (EHAA 2000/8/1). Horrez gain, ez dugu ahaztu behar 189/1994 Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko Kooperatiben Erroldaren antolaketa eta jarduna arautzen dituen (EHAA 1994/7/1), aurrerantzean, Kooperatiben Erregistroaren Araudia.
3. Ik. KESSELMAN DE UMANSKY, S. E. "Valores y Principios Cooperativos: Comentario a raíz de su formulación por la Alianza Cooperativa Internacional en Manchester, 1995", In: *Sociedades Cooperativas: Régimen jurídico y gestión económica*, Madrid: Ibidem, 1999, 20. or.

dira: Lankide-Kooperatibak, Kontsumo-Kooperatibak, Irakaskuntza-Kooperatibak, Nekazaritza-Kooperatibak, Elkarlanean Ustiatzeko Kooperatibak, Etxebizitzen-Kooperatibak, Finantza-Kooperatibak, Osasun-Kooperatibak, Zerbitzu-Kooperatibak eta Ezinduak Gizarteratzeko Kooperatibak.

Gaur egun Espainian Kooperatibek eraentza propioa duen berriazko sozietate-mota bat eratzen dute. Hori ez da gertatzen beste antolamendu juridiko batzuetan; esaterako, Frantziako eta honen antzekoak diren Legedietan Kooperatibek sozietate mota desberdinak erabiltzen dituzte (anonimoak edo mugatuak, baita sozietate zibila edo elkarte hutsa ere) euren enpresa-jarduera bideratzeko asmoz. Beste sistema batzuetan, ostera, Kooperatiba-elkartea zehazki definitu gabe, Kooperatibak sortzeko *"kooperatiba-izaera duten Kapital-Sozietateak"* eratzera –Estatutuaren arau berezien bitartez– behartuta daude⁴.

Nolanahi ere, Kooperatiba Sozietateen eraketa aztertzerakoan, ez daude Kooperatibak konfiguratzeko sistema desberdinak bakarrik, baizik eta baita sozietate horiek arautzeko modu desberdinak ere⁵. Esaterako, Europako Batasuna osatzen duten Estatu-kideen Legediak aztertzen baditugu, Estatu batzuetan, Kooperatibei buruzko Lege espezifikoa daude, esaterako Alemanian (izan ere, Alemaniako Kooperatiben Legea Europako lehenengotakoa da), Espainian (Estatuko Kooperatibei buruzko Legearen ondoan, autonomia erkidegoetako Legeak ere badaude), Grezian (1667/1986 Kooperatibei buruzko Lege orokorra, eta horrez gain 1541/1985 Legea, Nekazaritza-Kooperatibentzako) edo Portugalen (*"Codigo Cooperativo"*). Beste batzuetan, alderantziz, Kooperatibak izaera orokorra duten arauen bidez eraentzen dira (Kode Zibilean edo Merkataritzako Legedian). Hori gertatzen da, adibidez, Belgikan (Belgikako Merkataritzako Kodea aplikatzen zaie –*"Lois Cordonnées"*–), Holandan (Kode Zibila –II. Liburuko 3. Tituluan–) edo Italian (1942ko Kode Zibila –2.511. artikulutik 2.545. artikuluraino–). Eta, azkenik, Danimarka bezalako Estatuak egongo lirateke. Horietan ez dago Kooperatibei buruzko berriazko arauketarik.

Baina Espainiako sistematik benetan atentzioa ematen duen ezaugarria, Kooperatiba-leggedien aniztasuna da. Izan ere, Konstituzioa aldarrikatu ondoren autonomia erkidegoak euren Estatutuaren bereganatutako eskumenak

garatzen hasi ziren. Ondorioz, Estatuko Legearen ondoan eta batera, autonomia erkidegoetako Legeak daude.

Konstituzio Auzitegiaren (aurrerantzean, KA) 1983ko uztailaren 29ko Sententzian⁶ argi gelditu zen EAEk eskumena zuela Kooperatiben gaineko Legeak egiteko eta, ondorioz, baita beste autonomia erkidego batzuek ere, baldin eta eskumen hori beren Estatutuaren bidez bereganatu bazuten. KAREN arabera, Konstituzioaz gain, Autonomia Estatutua da Estatuaren eta EAEn arteko eskumenak zehazten dituen araua. Auzitegiaren esanetan, Konstituzioak ez dio Estatuari Kooperatibei buruzko eskumenik berriaz gordetzen; ondorioz, Konstituzioaren 149.3. artikulua arabera, Autonomia Erkidegoak bere Estatutuan bereganatutako eskumenak izango ditu eta Estatuak, ordea, Erkidegoak bereganatu ez dituen beste guztiak. EAEn Estatutuan Kooperatiben gaineko kompetentzia 10.23. artikuluan jasotzen da (artikulu horretan EAEn eskumen eskusiboak zerrendatzen dira), beraz, Auzitegiak adierazi zuen bezala, EAEk eskumena du Kooperatibak Legearen bidez arautzeko (Hirugarren Funtz Juridikoa).

Eskumen horren lurralde esparruari buruz, KAK 1982ko Legeak ezartzen zuen irizpidea Konstituzioaren aurkakoa zela adierazi zuen. Legearen Lehenengo Azken Xedapenaren arabera, Euskadiko Legea egoitza EAEn zuten Kooperatibei aplikatuko zitzairen, edozein izanda

“ Kooperatiba bati Euskadiko legedia aplikatzeko, beharrezkoa da sozietate-objektua zehazten duten lankidetzaren harremanak EAEn gauzatzea ”

4. ZELAIA, A. *Kooperatiben Zuzenbidea. Oinarriak*, Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, 1996; 46-47 orr. Autoreak Kooperatiba-Elkartea adierazmoldea erabiltzen du Sozietate Kooperatiba adierazteko.
5. JULIÁ IGUAL, J.F.; GALINDO BUENO, J.A. eta GALLEGU SEVILLA, L.P. "Normativa Central y Autonómica de la Empresa Cooperativa en España. Especial referencia a su Régimen Económico y Social", in: *REVESCO. Revista de Estudios Cooperativos*, 67. zenbakia, 1999; 139-144 orr.
6. Sententzia horretan, Konstituzio Auzitegiak Euskal Herriko lehenengo Kooperatiba Legearen aurka (1/1982 Legea, otsailaren 11koa) jarri zen 201/82 Konstituzio Aurkakotasun Helegitea ebatzi zuen (EHAA 1983-8-18).



Kooperatibak eratzeko prozedurak ezaugarri berezi batzuk ditu. (TU Lankide Mondragón Corporación Corporativa-ren aldizkariak utzitako irudia).

beren jardueren lurralde esparrua. KAren esanetan, EAEk bakarrik izango zuen eskumena beren sozietate-jarduera tipikoa Erkidegoaren lurralde barruan gauzatzen zuten Kooperatiben gainean (*Laugarren Funts Juridikoa: Euskal Autonomia Erkidegoak beren sozietate-jarduera tipikoa gauzatzen duten kooperatibak legez arautzeko eskumena du...*). Ondorioz, gaur egun, Euskadiko Kooperatiben 4/1993 Legearen Bigarren Azken Xedapenak eta Kooperatiben Erregistroaren Araudiaren 47. artikulua ezarri dute Kooperatiba bati Euskadiko legedia aplikatzeko beharrezkoa dela sozietate-objektua zehazten duten lankidetzaren harremanak (hau da, Kooperatibak bere bazkideekin dituen harremanak) EAEan gauzatzea. Horrek guztiak, ordea, ez du galarazten Kooperatibak EAEko lurraldetik kanpo gainontzekoekin harreman juridikoak izatea edo bere sozietate-objektuarentzat osagarriak diren jardueren instrumental nahiz pertsonalak egitea.

3. Kooperatiba Sozietateen eraketa

Kooperatibei buruzko lehen Autonomia-Legeak Euskal Herrikoa⁷ eta Kataluniakoa izan

ziren, 1982 eta 1983. urteetakoak hurrenez hurren eta, konkretuki, Euskadiko 1982ko Legea oso kritikatu izan zen, beste gauza batzuen artean, Kooperatiba Sozietateak eratzeko prozeduragatik.

1982ko Legean, Kooperatiba Sozietateen eraketa 6-9 artikuluetan arautu zen.

Kooperatiben eratze-prozesua, bazkide sustatzaile guztiek osatuko zuten Biltzar Eratzaile batekin hasiko zen (geroago azalduko dugun bezala, doktrinak kritikatu egin du "*Biltzar Eratzaile*"-aren figura; hala ere, egungo Legeak terminologia bera erabiltzen du). Lege horren 10.1. artikulua araberak, lehen mailako Kooperatibetan beharrezkoak ziren lau bazkide gutxienez eta ondorengo mailakoetan bi. Biltzar horren eginkizun nagusia Estatutuak eztabaidatzea zen eta, horrez gain, sustatzaileen artean Kooperatiba inskribatzeko beharrezkoak ziren egintzak egiteko pertsonak (kudeatzaileak) izendatzea. Kudeatzaile horiek Kooperatiben Erregistroaren aurrean aurkeztuko zuten Biltzarraren akta.

Aktak, alde batetik Estatutuak eta, bestetik, horiek berariaz onartu zituzten bazkide

7. Esan bezala, 1/1982 Legearen ondoren, gaur egun indarrean dagoen 4/1993 Legea onartu zen, Euskadiko Kooperatibena.

sustatzaileen erlazioa edo identifikazioa jaso behar zituen eta, 6.3. artikulua arabera, gutxienez lau sustatzailek sinatu beharko zuten. Sinadura horiek Kooperatiben Erregistroak legeztatuta edota notarioak egiaztatuta egon behar ziren. Dena dela, ondasun higiezinak ekartzen baziren, beharrezkoa zen eskritura publikoa egilestea (8.1. art.).

Sozietatea eratuko zen eta nortasun juridikoa izango zuen akta Kooperatiben Erregistroan inskribatzen zenean (8.1. art.).

Beraz, Kooperatiba Sozietate bat eratzeko ez zen behar eskritura publikorik, baizik eta nahikoa zen akta bat, hau da, dokumentu pribatu bat, Kooperatiben Erregistroak legeztatutako edo notarioak egiaztatutako lau bazkide sustatzaileen sinadurarekin. Eskritura publikoaren eskakizuna bakarrik eskatzen zen Kooperatiba eratzeko ondasun higiezinak ekartzen ziren kasuetan.

Doktrinak ez zuen positibotzat hartu legegile euskaldunak harturiko irizpidea. VENTURA TRAVESETen hitzetan, "*Vicent Chuliak dioen bezala, lau sustatzaile sinatzaileen adierazpena da Erregistroan Estatutuekin batera inskribatzen dena. Horiek bakarrik ematen dute Estatutuen onarpenaren gaineko fedea. Horrek, gure ustez, erantzukizun handia ematen du, eta berme gutxi*"⁸. GADEAren ustez, larriena ez zen Legeak ez zuela eskritura publikoaren betekizuna eskatzen, baizik eta ez zela fundatzaile guztien sinadura behar⁹ (gogoratu behar dugu 1982ko Legearen 6. artikulua eskatzen zuela akta horretan *lau sustatzaileen* sinadura bakarrik jasotzea).

Gaur egun indarrean dugu 4/1993 Legea, Euskadiko Kooperatibena, 1/2000 Legeak sarturiko aldaketekin. Lege horren 7-14 artikulua aztertzen baditugu eta merkataritzako sozietateen eratze-prozedurarekin konparatu, konturatuko gara Kooperatiba bat eratzeko prozedurak eta merkataritza sozietateen eratze-prozedurak antz handia dutela; ondorioz, Kooperatiba bat eratzeko derrigorrezkoa da eskritura publikoa egilestea eta Erregistroan inskribatzea. Edozein modutan ere, Kooperatiba bat eratzeko prozedurak baditu merkataritzako sozietateen prozedurek ez dituzten ezaugarri propio batzuk. Has gaitezen ba Kooperatiba Sozietatea eratzeko ezartzen diren egintza desberdinak aztertzen.

a) Aurretiko baldintzak

1. Gutxieneko bazkide kopurua eta kapitala

4/1993 Legearen 19.1. artikuluko lehenengo erredakzioan, lehen mailako Kooperatibetako bazkide edozein pertsona fisiko zein juridiko, publiko nahiz pribatua, izan zitekeela esan ondoren, horiek sortzen ziren unean gutxienez bost bazkide izan beharko zirela ezarri zen. Bigarren mailako edo geroagoko Kooperatibek beren bazkide sortzaileen artean gutxienez bi Kooperatiba Sozietate izan beharko zituzten. Horrez gain, 4. artikulua arabera, gutxieneko sozietate kapitala 1.000.000 pezetatan ezarri zen eta moneta horretan adierazi behar zen.

Urte batzuk igaro ondoren 1993ko Legea aplikatzen hasi zenetik, Euskadiko Kooperatiba mugimenduaren eskakizunak aintzat hartuz, Lege horren aldaketa prestatzeko garaia heldu zen. Horrela 1/2000 Legea, ekainaren 29koa, onartu zen, 4/1993 Legea aldatzen duena. Azken lege horrek Euskal Herrian kooperatibagintza sustatzea helburutzat duten hainbat neurri jasotzen ditu, "*frogatuta baitago kooperatibagintza kalitatezko lanpostuak sortzeko, aberastasuna banatzeko eta langileek ekoizpen-bideen jabetza eskuratzeko bereziki formula egokia dela*" (Zioen Adierazpena).


2000ko Lege berri horren hirugarren artikulua sartzen duen aldaketaren ondorioz, lehen mailako Kooperatibak eratzeko gutxieneko bazkide kopurua bostetik hirura jaitzi da, Kooperatiba berriak sortzeko modua erraztuz eta beste lege batzuen joera jarraituz¹⁰. Beraz, Kooperatiba Sozietateen eraketa sustatzeko neurri baten aurrean aurkitzen gara, eta horrek enplegua sortzeko aukerak handitzen ditu. Horrela, nahiz eta sozietate baten bazkide edo partaideen kopurua mugatua izan, posiblea izango da proiektu berriak Kooperatiba Sozietate baten bidez gauzatzea. Gaur egun neurri hori ondoko beste bi hauekin osatu behar da: alde batetik, Kooperatiba baten bazkide izateko aukera duten langile langabeek langabeziagatiko prestazioaren ordainketa bakarra eskatzeko posibilitatearekin eta, bestetik, 283/2000 Dekretuak (EHAA 2000-12-30) arautzen duen 60 urtetik gora duten Kooperatibetako bazkideak ordezkatzeko kontratuarekin (lehen, txandako kontratua bakarrik erreserbatzen zen Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean afiliatutako langileentzako).

8. VENTURA TRAVESET, A. "La constitución de la Sociedad Cooperativa y el papel del Notario", In: *Segundos encuentros Cooperativos de la UPV/EHU. Aspectos notariales y registrales de las Sociedades Cooperativas*, Donostia: GEZKI, 1987; 46. or.

9. GADEA, E. *Evolución de la legislación cooperativa en España*, Gasteiz: Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua, 1999; 184-185 orr.

10. Ik. Andaluziako (9. art.), Extremadurako (8. art.), Madrileko Erkidegoko (8. art.) eta Estatuko Kooperatiben Legeak (8. art.).





Kooperatiben helburua beharizan ekonomiko, sozial eta kultural komunak asetzea da (TU Lankide Mondragón Corporación Corporativa-ren aldizkariak utzitako irudia).

Horrez gain, 4/1993 Legearen lehenengo erredakzioan eskatzen ez zen bezala, 1/2000 Legeak sarturiko aldaketaren ondorioz, hiru bazkide horiek eratutako Kooperatiba-motakoak izan behar dute (lehen, gutxieneko bazkide kopurura bostean finkatu zen, mota zehaztu barik). Horrek esan nahi du, esaterako, Lankide-Kooperatiba bat eratu nahi bada, gutxienez eratzeko mementoan hiru bazkide langilek egon behar dutela.

“ Nabarmena da, proporzioan, gaur egun Kooperatiba bat sortzeko bazkide bakoitzak egin behar duen gutxieneko ekarpenaren murrizketa ”

Bazkideen gutxieneko kopuruaren murrizketaren ondorioz, gutxieneko sozietate kapitala ere 3.000 eurotara jaisten da, hau da, 499.158 pezeta. Logikoa da lehen mailako bazkide kopurua murrizten bada, gauza bera gertatzea sozietatearen gutxieneko kapitalarekin. Nabarmena da, proporzioan, gaur egun Kooperatiba bat sortzeko bazkide bakoitzak egin behar duen gutxieneko ekarpenaren murrizketa: 4/1993 Legearekin gutxieneko bazkide kopurua bost zen eta gutxieneko kapitala 1.000.000 pezeta; 1/2000 Legeak sarturiko aldaketaren ondorioz, ordea, bazkide kopuru hori hirura murrizten da eta kapitala 3.000 eurotara, Erantzukizun Mugatuko Sozietateen gutxieneko kapital kopuruari urreratuz.

Bukatzeko, positibotzat baloratu behar dugu kapitala eurotan ezartzea. Kapitala moneta horretan ezarri zuen lehenengo legea Madrileko Kooperatiben Legea izan zen, baina Lege horrek gutxieneko kapital kopurua 300.000 pezetatik ezarri zuen.

2. Izendapena

Kooperatiba pertsona juridiko bat izango da, eta berori identifikatzeko izen bat eduki behar du. Kooperatiben sozietate-izena aukeratzeko, 4/1993 Legearen 2. artikulua eta Kooperatiben Erregistroaren Araudiaren 41 eta 95

eta ondorengo artikulua (izenaren osagaiei, identitateari eta debekuei buruzkoak, hain zuzen ere) hartu beharko ditugu kontuan.

Laburbilduz, Kooperatiba Sozietate baten izenak bi osagai izango ditu: lehenengoa, sozietatea bera ezagutarazten duena, eta bestea, Kooperatibaren itxura eta izaera adierazten duena (horretarako, izenari *"Kooperatiba Sozietatea"* hitzak edo bere laburdura gehitu beharko zaizkio). Dena dela, bai 4/1993 Legeak bai Kooperatiben Erregistroaren Araudiak, lehenik dagoen Kooperatibaren baten izen berdina jartzeko debekua ezartzen dute. Horretarako, Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioako Kooperatiben Erregistroari eta Euskadiko Kooperatiben Erregistroari izen bereko beste Kooperatibarik ez dela existitzen adierazten duen ziurtagiria eskatu beharko zaie, eta agiri horiek eratze-eskiritzari gehitu (4/1993 Legearen 12.2.f) art.).

Dena dela, ez dugu ahaztu behar 1/2000 Legearen Xedapen Gehigarri Bakarrak berrikuntza garrantzitsu bat sartzen duela ziurtagiri horiei buruz, ondokoa xedatzen duenean: *"Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren eta Kooperatiben Erregistro Zentralaren zein Merkataritza Erregistro Zentralaren arteko koordinazioa bultzatuko du, Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legeko 12.2.f) artikuluan aurreikusitako sistemaren ordezkia izena beste baten berbera ez dela bermatzen duen ziurtagiri batengatik"*. Modu honetara, Merkataritza Erregistroaren eta Kooperatiben Erregistro Zentral nahiz Autonomikoen artean dagoen konexio ezaren aspaldiko arazoari konponbidea emateko bide bat zabalitzen da.

b) Biltzar Eratzailea

Kooperatiba eratzeko prozedura, 1/1982 Legean bezala, Biltzar Eratzailearekin hasten da. Biltzar Eratzailea sustatzaileek osatuta egongo da eta bere eginkizun nagusia sozietatearen Estatutuak onartzea da. Horrez gain, Kooperatiba eratzeko beharrezkoak diren gainerako akordioak hartuko ditu, esaterako, kudeatzaileak izendatu, eta horiek izango dira, hain zuzen ere, Kooperatiba inskribatzeko egintzak burutu ahal izango dituzten pertsonak, sustatzaile guztien aldiberekotasuna saihestuz eta, ondorioz, horrek dakartzan arazoak.

Doktrinak Legeak erabiltzen duen *"Biltzar Eratzailearen"* figura kritikatu egin du, batzar hori ez delako benetako biltzar bat, ezta eratzzailea

ere. VENTURA TRAVESETen ustez¹¹, biltzar horiek ez dira benetako biltzarrak zentzu juridikoan, hau da, ez dira pertsona juridiko baten borondatearen adierazpenak. Pertsona juridikoa (kasu honetan, Kooperatiba Sozietatea), bere organo kolegiatuak baino lehenago sortu behar da. Biltzen diren pertsonak ez dira botoaren bidez organo kolegiatu baten sozietate-borondatea eratzeko parte hartzen duten kideak, baizik eta *"uti singul"* jarduten dute (ez *"uti socii"*), hau da, gehiengoaren borondateak lotu ezin dituen partikular bezala.

Eztabaida hori alde batera utzita, egia da Biltzar Eratzailearen bileraren bidez ez dela Kooperatiba berri bat eratzen, baina ez da garrantzi gutxiagokoa bihar-etzi eratuko den sozietatearen sustatzaileak biltzea, Kooperatibarekin zerikusia duen guztia behar bezala aurreikusteko. Memento horrek berebiziko garrantzia du sozietatearen eraketan.

c) Estatutuen egitasmoaren alde aurretiko kalifikazioa

4/1993 Legearen 9. artikulua eta Kooperatiben Erregistroaren Araudiaren 37. artikulua arabera, kudeatzaileek aukera dute, Biltzar Eratzailearen bestelako erabakirik izan ezean, Kooperatiben Erregistroari, eskritura publikoa egilestu baino lehen, alde aurretik Estatutuen egitasmoa azter dezala eskatzeko. Horretarako Biltzar Eratzailearen aktaren bi ale aurkeztu beharko dira, sustatzaile guztiek sinatuta. Sinadura horiek notarioak egiaztatuta edo Erregistroak legezkatuta egon behar dute. Akta horretan alde aurreko kalifikazioaren gai diren Estatutuen egitasmoa jasoko da.

Kooperatiben Erregistroak eskaera egin denetik hogeita hamar eguneko epea du kalifikazioa egiteko.

Estatutu egitasmoaren aldeko kalifikazioa ematen bada, dagokion ebazpenarekin batera, kudeatzaileei ale bat itzuliko zaie, behar bezala izenpetu eta zigiturik. Erregistroak zuzen daitezkeen akatsak aurkitzen baditu, kudeatzaileei jakinaraziko die eta horiek, Biltzar Eratzaileak besterik erabakitzen ez badu behintzat, aipaturiko akatsak konpontzeko baimena izango dute hilabete bateko epearen barruan.

Alde aurretiko kalifikazioaren aukera ez da bakarrik Euskadiko Legean ezartzen, baizik eta beste autonomia erkidegoetako Lege batzuek ere onartu egin dute, nahiz eta kalifikazio horren

11. Ikus VENTURA TRAVESET, A. "La constitución de la Sociedad Cooperativa y el papel del Notario" aipaturiko lanean, Donostia: GEZKI, 1987; 38-39 eta 43-45 orr. eta GADEA, E., aipaturiko lanean, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua, 1999, 182-183 orr.

objektua desberdina izan Lege bakoitzaren arabera, esaterako, Katalunia, Andaluzia eta Valentziako Legeetan alde aurretiko kalifikazioa ez zaio mugatzen Estatutuen egitasmoari soilik. Galizia, Aragoi, Nafarroa, Extremadura eta Estatuko Legeetan, ordea, kalifikazio hori Estatutuen egitasmoaren gainean izango da eskusiboki¹².

Egia esan, Sozietate Anonimo edo Erantzukizun Mugatuko Sozietateetan ez da pareko aukerarik aintzatesten, ezta 1/1982 Kooperatiben Legean ere.

Beraz, bai Kooperatibei buruzko Legean, bai Kooperatiben Erregistroaren Araudian, Estatutuen egitasmoaren alde aurretiko kalifikazioa *borondatezko* izapide edo tramite bat bezala konfiguratzen da, hau da, kudeatzaileek duten aukera bat bezala. Baina ze ondorio izango ditu Estatutuen egitasmoen alde aurretiko kalifikazio horrek Erregistroarentzat? Ez 4/1993 Legeak, ez Kooperatiben Erregistroaren Araudiak ez diote erantzunik ematen galdera horri, hau da, ez dute zehazten kalifikazioari buruzko ebazpena loteslea izango den ala ez eskritura inskribatzeko aurkezten denerako eta, beharbada, hori argitu eta zehaztu beharreko puntu bat izango litzateke legegilearen aldetik.

Beste autonomia erkidegoetako Lege batzuek, ordea, berriaz adierazten dute alde aurretiko kalifikazioaren ebazpena loteslea izango den ala ez, adibidez, Valentziako Legearen 11.3. artikulua dio *“Eratzeko eskritura eman baino lehen, loteslea ez den irizpen bat eskatu ahal izango da Erregistroan, eskritura eta estatutuak Lege honek xedatutakoarekin bat datozela adierazteko”*, beraz, kalifikazioaren objektua zabalagoa da, baina irizpena ez da loteslea izango. Andaluziako Legearen 25. artikulua, ordea, kalifikazio hori loteslea izango dela ezartzen du: *“1. Kooperatiba Sozietateak eratzeko eta beren estatutu sozialak aldatzeko egintzak eskritura publikoan jaso baino lehen aurrekalifikatu ahal izango dira Kooperatiba Sozietateen Erregistroan...2. Erregistro horrek egindako kalifikazioa loteslea izango da dagokion eskritura publikoa inskribatzeko unean...”*. Aragoiko Legearen 10. artikulua urrunago joaten da *“Ezin izango da inskripzioa ukatu ez eta atzeratu ere, alde aurrekalifikatutako datuetan oinarrituz”*, esaten duenean.

Egia da Valentziako Legeak eta Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren Araudiak hitz desberdinak erabiltzen dituztela Erregistroak ematen duen alde aurretiko kalifikazioaren ondorioa adierazteko, Valentziako Legeak “irizpen” hitza erabiltzen baitu, eta Euskadiko Kooperatiben Erregistroko Araudiak, ordea, bere 37. artikuluan, “ebazpena”. Eta Herri Administrazioen Eraentza Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen arabera, Administrazioen ebazpenak eraginkorrak izango dira. Hala ere, badaude autore batzuk uste dutenak Administrazioak bere irizpidea alda dezakeela, betiere ziodun ebazpenaren bidez, bertan lehenengo kalifikazioa ematerakoan ezagutzen ez zituen zuzenbidezko funts berriak emanez¹³.

Nire ustez, Euskadiko Kooperatiben Legean edota Kooperatiben Erregistroko Araudian berriaz ezarri beharko litzateke Erregistroak egiten duen Estatutuen egitasmoaren alde aurretiko kalifikazioa loteslea izango dela eta, horrez gain, interesgarria izango litzateke xedatzea, Aragoiko Legeak egiten duen moduan, ezingo dela alde aurretik kalifikatuta dauden Estatutu horien inskripzioa atzeratu.

Kooperatiben eratze prozedura guztia aztertzen badugu, gerta daiteke sozietatearen Estatutuak “kalifikazio hirukoitza” izatea edo, hobeto esanda, “azterketa hirukoitza” edota “legalitate kontrol hirukoitza” (gero aipatuko dugun bezala, doktrinaren alde batentzako, notarioak egiten duen kontrola ez baita benetako kalifikazio bat zentzu hertsian): bata, Erregistroak egiten duena, Estatuaren egitasmoa aurkezten zaionean; bigarrena, notarioak egiten duena, eskritura egilesterakoan¹⁴; eta hirugarrena, Erregistroak egiten duena, eskritura inskribatu baino aurretik. Horrela, segurtasun juridikoa sendotu egiten da, baina, beste alde batetik, izapideak gehitu egiten dira.

Aipatu den bezala, autore batzuek zalantzan jartzen dute notario-kalifikazioa, adibidez GÓMEZ GALLIGOK eta GARCÍA GARCÍAk. Azken horren ustetan, notario-funtzioa ez da kalifikatzea, bestela *autokalifikazio* bat izango litzateke, eta notario-legediak ez du inoiz *kalifikazio* hitza erabiltzen, baizik eta hitz hori Hipoteka Legeak erregistratzailearentzako erreserbatzen du. Notarioak egiten duena fedea

12. Kataluniako Legearen 9.2. artikulua: “estatutu sozialak eta eraketarako gainerako agiriak”, Andaluziako Legearen 25. artikulua: “Kooperatiba sozietateak eratzeko eta beren estatutu sozialak aldatzeko agiriak...” eta Valentziako Legearen 11.3. artikulua: “... eskrituraren eta estatutuen konformitateaz ...”. Alderantziz, Galiziako Legearen 11.2 eta 15. artikulua “estatutuen egitasmoa”, Aragoiko Legearen 10. artikulua: “... bere Estatutuak eskritura publikoan jaso baino lehen”, Nafarroako Legearen 14. artikulua: “estatutuen egitasmoa”, Extremadurako Legearen 11. artikulua “estatutuen egitasmoa” eta Estatuko Legearen 11.2. artikulua “Estatutuen egitasmoa”.
13. Horrela azaltzen dute CABANAS, R. eta NAVARRO, J.M.k, “Constitución de las Cooperativas”, In: *Comunidades de Bienes, Cooperativas y otras formas de empresa*, Madril: Consejo General del Notariado, 1996; 523. or; CHULIÁ, V., “Ley general”, 1. Liburukia, 300, aipatzen dutenean.
14. Ikus Notario-Araudiaren 147. artikulua.

ematea, dokumentuak eskustea eta gaitasunari buruzko judizioa ematea da. Notarioak legezkontasunari buruzko judizio bat ematen du, aldez aurretik eta alderdien arteko ondorioekin, gero erregistratzailearen galbahetik pasatuko dena. Azken hori organo inpartzial eta independentea da, “*erga omnes*” eraginekin, eta dokumentuaren kalifikazio osoa egiteko baliabideak dituena.

DE PRADAK notario-funtzioaren edukia barruan “funtzio autentikatzailea” dagoela esaten du, “*non notarioak, dokumentatzaile orok bezala, dokumentatu beharreko agiriaren gain egin behar duen legaltasunaren kontrola barnebiltzen den. Agiriari autentikotasun formala ematen dio*”¹⁵.

Nolanahi ere, ezin da ukatu bai notarioak bai erregistratzaileak funtsezkoak direla segurtasun juridikoa bermatzeko. Notarioak trafiko juridikoan parte hartuko du dokumentu publikoa egilesterakoan, hau da, Kooperatiba Sozietatea eratu baino lehenago, eta erregistratzaileak, ordea, dokumentu hori jasotzen duenean, berori inskribatzeko eta, horrez gain, Kooperatibaren kasuan bereziki, eratze-eskritura egiletsi aurretik, Estatutuen egitasmoa aldez aurretik aztertzeko. Esan genezake notarioaren partehartzeak ondorioak izango dituela Kooperatiba bat eratzeko prest dauden *alderdien artean*, eta erregistratzailearenak, ordea, publizitate printzipioaren arabera, *gainontzekoen aurrean* eta, horrez gain, eskusiboki Kooperatibaren eraketan, baita prozedura hori prestatzen ari diren *alderdien artean* ere.

Atal honekin bukatzeko, aipatu bakarrik ez 4/1993 Legeak, ez Kooperatibaren Erregistroaren Araudiak ere ez dutela zehazten zein den aldez aurretiko kalifikazio hori eskatzeko epea. Dena dela, arazo horrek ez dauka hainbesteko garrantzirik, Kooperatibarentzako eskatu den izena hamasei hilabeteko epean bakarrik gordeko delako, epe hori luzatzeko beharrezkoa izanik Kooperatibaren eraketaren inskripzioa hastera (Kooperatibaren Erregistroaren Araudiaren 100. art.).

d) *Eskritura publikoa eta Estatutuak*

Hurrengo pausoa eskritura publikoa egilestea izango litzateke, eta horretarako bi hilabeteko epea dago Biltzar Eratzailea bildu zenetik edo bestela Estatutuen egitasmoaren aldez aurretiko kalifikazioa egin zenetik zenbatzen hasita.

1982ko Legean gertatzen ez zen bezala, 1/1993 Legearekin, eskriturak funtsezko balio eratzailea du Kooperatibaren eratze-prozeduran. Azken Lege horren Zioen Adierazpenean azaltzen da “*Kooperatibak eratzean bazkideen, besteren edo baita herri-administrazioaren bermeak indartu nahi dira, eta horretarako, kooperatiba sortzeko beharrezkoa dena legelari-agirian* (eskritura publikoan) *jaso beharra ezarri da, lege aldetik ziurtasuna izan ahal izateko*”. Beraz, aurreko sistemarekin konparatuz, segurtasun juridikoa indartu egin da, gainerako autonomia erkidegoetako Legeek ezarritako eskakizunekin bat eginez.

Europako Batasuneko Estatu-kideen Kooperatiba-Legedia aztertuta¹⁶, sistema desberdinak aurki ditzakegu eskritura publikoaren eskakizunaren gainean. Estatu batzuetan ez da beharrezkoa eskritura publikoa egilestea; beste batzuetan, ordea, beharrezkoa da, eta, azkenik, “*tarteko sistemak*” aurki ditzakegu.

Aipatu bezala, Alemania, Grezia eta Frantzia bezalako Estatuak ez da beharrezkoa eskritura publikorik egilestea. Konkretuki Alemanian 1889. urteko maiatzaren 1eko Legeak bakarrik eskatzen du Kooperatibaren Estatutuak idatziz jasotzea (§5). Frantzian, sozietateek Estatutuak idatziz jaso behar dituzte (Kode Zibilarren 1.835. art.) eta dokumentu hori pribatua edo autentikoa izan daiteke. Dokumentu autentikoa beharrezkoa da sozietatera ondasun higiezin bat ekartzen denean.

Beste Estatu batzuetan, esaterako Danimarka, Herbehereetan edo Italian, beharrezkoa da eskritura publikoa edo notario-akta.

Belgikan eta Portugalen tarteko sistema ezartzen da, dela notarioak parte hartzen duelako eratze-aktaren eta Estatutuen sinaduraren egiaztapenean, dela eskritura publikoa Kooperatiba konkretu batzuentzako erreserbatzen delako. Belgikako Merkataritzako Kodearen arabera, erantzukizun mugatuko Kooperatibak eratzeko beharrezkoa da notarioak egiten duen den akta autentikoa (147 (bis) § 4 art.). Erantzukizun solidario eta mugagabeko Kooperatibak, printzipioz, dokumentu pribatu baten bidez era daitezke. Dena dela, gerta daiteke eskritura publikoa derrigorrezkoa izatea Kooperatibekin zerikusirik ez duten arauen aplikazioagatik; esaterako, ondasun higiezinak ekartzen direlako. Portugalen lehen mailako Kooperatibak dokumentu pribatu bidez era daitezke, baina legedi osagarriak Kooperatiba

15. Ikus DE PRADA, J. “La función notarial y persona jurídica”, In: *Segundos encuentros Cooperativos de la UPV/EHU. Aspectos notariales y registrales de las Sociedades Cooperativas*, Donostia: GEZKI, 1987; 11-27 orr.

16. Ikus MONTOLIO, J.M. *Legislación Cooperativa en la Unión Europea*, 2. edizioa, Madril: Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales. Subdirección General de Publicaciones, 2000.

mota batzuentzako eskritura publikoa eskatu ahal izango du (Kooperatiba Kodearen 10. art.). Nolanahi ere, notarioak dokumentu pribatu horretan parte hartuko du, Kooperatiba Kodearen 12. artikulua eratzeko akta eta Estatutuen bost sinaduren notario-egiaztapena eskatzen duelako.

Eskritura publikoaren eta Estatutuen edukia 4/1993 Legearen 12 eta 13. artikuluetan arautzen da, hurrenez hurren.

e) Inskripzioa

Sozietatea Kooperatiba Erregistroan inskribatu behar da eta memento horretatik nortasun juridikoa eskuratuko du. Ez dugu ahaztu behar inskribatu nahi dugun egintzari dagokion tributu-likidazioa eskatu edo egin dugula justifikatu behar dugula Erregistroan aurkeztu aurretik.

4/1993ko Legearen 15. artikulua arabera, Euskadiko Kooperatiben Erregistroa Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzako Sailari atxikitako legezko Erregistroa da, eta organo-egitura bateratua du. Hori ez da gertatzen Europako Batasuna osatzen duten beste Estatu batzuetan, Kooperatibak inskribatzen diren Erregistroak epaileen eskuetan daudelako edota Merkataritzako Erregistroan inskribatzen direlako.

Konkretuki, Alemanian, Frantzia (Kooperatiba merkataritzako sozietate bezala eratu bada eta, ondorioz, Merkataritzako Erregistroan inskribatzen bada, eta hori kasu gehienetan gertatzen da), Grezian edo Italian, Kooperatibak inskribatzen diren Erregistroak epaileen eskuetan daude.

Kooperatibak Merkataritzako Erregistroan inskribatuko dira Alemania (zehatzago esateko, Kooperatibak Kooperatiben Erregistroan inskribatuko dira, baina Merkataritza Zuzenbidean eskumena daukan Auzitegia arduratuko da Kooperatiben Erregistroaz), Belgika, Danimarka ("Merkataritza eta Sozietateen Daniar Agentzia"-k jarduten du Merkataritza Erregistro gisa), Frantzia (aipatu bezala, Kooperatiba merkataritzako sozietate bat bezala eratzen bada), Italia edo Luxenburgoko bezalako Estatuetan.

Azkenik, Holanda ("Merkataritza, Industria eta Artisautza Ganbera") eta Portugalen ("*Registo Nacional de Pessoas Colectivas*") kasuan, Elkarteak, Fundazioak eta Kooperatibak Erregistro berean inskribatzen dira.

Edozein modutan ere, Euskadiko Legedia Europako Batasuna osatzen duten hainbat Estatu legediekin bat dator Kooperatibaren inskripzioaren izaera eratzailarekin. Izan ere, Alemania, Belgika, Danimarka, Frantzia, Grezia, Italia, Luxenburgoko edo Portugal bezalako Estatu legediek irizpide bera jarraitzen dute.

Beraz, alde honetatik, Euskadiko Legea bat dator aipatutako Estatu legediekin jarraitzen duten "*inskripzio eratzailarekin*" irizpidearekin.

4. Kooperatiba Sozietateen eraketa prozedurari buruzko jarrerak

Egia da Kooperatiben mugimenduak ezin dituela ezarri Kooperatibak eratzeko bete behar diren izapideak, ezta izapide horien izaera ere. Lan hori legegileari dagokio. Hala ere, Kooperatiben munduan ahotsak entzun dira Kooperatiben eratzeko-prozesua errazteko, ezin baitugu ahaztu gaur egun indarrean dagoen prozedurak hainbat izapide betetzea eskatzen duela, horrek dakartzan ondorioekin (batez ere, sozietatearen eraketa denboran zehar luzatzea, hainbat kontrol pasatu behar izatea eta sortzen dituen gastuen koste ekonomikoak jasatea).

1982ko Legea egin zenean, legegileak, prozedura sinplifikatzeko asmoarekin, eskritura publikoaren derrigortasuna ondasun higiezinak ekartzen ziren kasuetarako bakarrik ezarri zuen. Beraz, printzipioz, Kooperatiba bat eratzeko nahikoa zen dokumentu pribatu bat. Orain eskema guztiz aldatu da, eta gaur egun 4/1993 Legeak eskritura publikoa egilestea eskatzen du Kooperatiba bat eratzeko.

Hala ere, pentsa daiteke tramite hori ez dela beharrezkoa, batez ere Estatutuen egitasmoaren alde aurretiko kalifikazioaren aukera egikaritu bada. Erregistroak Estatuak jadanik aztertu baditu sozietatearen inskripzioa eskatu aurretik edo aztertuko baditu inskripzio hori eskatzerakoan, ez da beharrezkoa notarioaren kontrolik, Kooperatiben Erregistroa baita sozietate horien gainean organorik espezializatuenetarikoa bat. Edozein modutan ere, ezin daiteke pentsatu Estatuak alde aurretik kalifikatuta badaude notarioak egingo duen gauza bakarria Estatutu horiek protokolizatzea izango denik, baizik eta kasu horretan notarioak Notario-Araudiaren 147. artikulua arabera jardun beharko du eta, are gehiago, Araudi horren 145. artikulua arabera, baimena emateari uko ere egin diezaiolke. Horrez gain, ezin daiteke esan notarioak betetzen duen eginkizun bakarria legalitatearen kontrola denik, baizik eta beste eginkizun garrantzitsu batzuk ere betetzen ditu. Horregatik esan dezakegu dokumentu pribatuak ez dituela eskritura publikoak dituen baliozkotasun baldintza berak.

Eskritura publikoaren eskakizunarekin gertatu ez zen bezala, bai 1/1982 Legeak, bai 4/1993 Legeak, nortasun juridikoa eskuratzeko sozietatearen inskripzioa beharrezkoa zela ezarri zuten. Betekizun horri buruz, eta nortasun juridikoari dagokionez, euskal legedia Europako Batasuna osatzen duten Estatu legediekin bat dator.

sistema eratzailarekin bat datorrela esan dezakegu. Hala ere, inskripzioaren betekizuna edo, hobeto esanda, kodifikazioaren betekizuna, kuestionatu daiteke. Legezkotasun printzipioaren arabera, erregistratzaileak inskripzioa egin baino lehenago aurkezten zaizkion dokumentuak kalifikatu egin behar baditu, legezkotasun kontrol hori, Estatutuen egitasmoaren alde aurretiko kalifikaziorik ez badago behintzat, bigarrena izango da, hau da, notarioak egiten duen kontrolaren ondorengoa, hain zuzen ere. Aldez aurretiko kalifikazioa egon bada, erregistratzaileak egingo duen azterketa hirugarrena izango da eta, horrez gain, berak aurretik egindakoaren zati baten gainean (Estatutuak).

Kooperatiben inskripzioari buruz har daiteken neurriak gogorrena inskripzioaren betekizuna kentzea izango litzateke, baina hori ez da gaur egun posible, batik bat 4/1993 Legeak berariaz xedatzen duelako Kooperatiba bat eratzeko derrigorrezkoa dela sozietate horren inskripzioa. Horrez gain, ezin dugu ahaztu Kooperatiben Erregistroa sozietate horiei buruzko publizitate-tresna garrantzitsu bat dela, gainontzekoen mesedetan.

Hala ere, alternatiba bezala, planteatu daitezke tarteko beste bide batzuk, esaterako, Erregistroaren arduradunak egiten duen kalifikazioaren esparrua mugatzea, adibidez, Kooperatiben oinarritzko elementuen gainera (adibidez, bazkideen boto eskubidea), edota, Aragoiko Legeak xedatzen duen bezala, alde aurretik kalifikatutako datuetan oinarrituz inskripzioa ukatzeko edota atzeratzeko debekua

ezartzea, betiere alde aurretik kalifikatutako datu horiek edota Kooperatiben legedia aldatu ez badira.

Hirugarren jarrera Estatutuen egitasmoaren alde aurretiko kalifikazioaren aukera kentzea izango litzateke, legezkotasun kontrola notarioaren eta Kooperatiben Erregistroko arduradunaren eskuetan geldituz, eskritura egilesterakoan eta Kooperatibaren inskripzioa eskatzerakoan. Izan ere, posibilitate hori ez da aurreikusten beste sozietate batzuentzako. Hala ere, gogoratu behar dugu alde aurretiko kalifikazioa borondatezkoa dela, beraz, alderdien eskuetan geldituko da aukera hori egikaritzea edo ez.

Azaldutako hiru jarreraren argumentuak entzunda, gaur egun oso zaila da esatea epe laburrean jarrera baten edo beste baten aldeko neurriak hartuko direla. Denok dakigun bezala, orain dela hilabete gutxi batzuk onartu zen 4/1993 Legea aldatzen duen 1/2000 Legea, eta azken horrek ez du sartu inolako aldaketarik Kooperatiben eraketa prozeduran, beraz, oraingoz eskema berarekin jarraitu beharko dugu, hau da, Kooperatiba bat eratzeko eskritura publikoa egilestu beharko da eta ondoren Kooperatiben Erregistroan inskribatu. Horrez gain, Estatutuen alde aurretiko kalifikazioa eskatzeko aukera mantendu egin da. Hala ere, ez dugu ahaztu behar oraindik ate bat irekita gelditzen dela prozesu hori errazteko; bide hori Kooperatiben Erregistroaren Araudiaren aldaketa planteatzea da. Horrela, Kooperatiba Sozietateen eraketaren tramiteak sinplifikatzea lor dezakegu, betiere Legeak ezartzen dituen mugak errespetatuz.